



Larraineta eta La Arboleda arteko meatzal ustiagunea baino ez horren ezagunak, baina ez horregatik garrantzi txikiagokoak, I.I.Z.tik burbil dauden mendien goikoaldea eta Galdames aldera begiratzen duten mendibegalak dira (El Cuadro, Pico Mayor, Pico Menor...).

Proposatutako ibilbidean zehar, meatzal ibardueraren paisaiarekiko ondorioak beba daitezke (arrakalak, meazuloak, meatzal kokalekuak, errestabideak...). Beste leku batzuetan urmabelak sortu dira, gaur egunean fauna eta flora garrantzitsu baten bizileku direlarik.

Inguru honen zeharko ibilbidean, Galdamesera begiratzen duen karebarrizko magalean kokaturik dagoen Magdalena/Urallagako kobazuloa, eta meategia ere izandakoa, bisita daiteke. Bere sarreran Magdalenaren ermita lekutzen da, bertaraino, uztaileen 22 guztietan, La Arboleda meatzal berriaren zaindariaren eguna ospatzera inguruko herri guztietako hainbat jende urreratzen da.



“La Magdalena” leiza

doan bideari jarraituz, arroil txiki bat igaro ondoren, zelai batera **3** iritsiko gara, honaino 10 minutu eman ditugularik.

Leku honetan, bide nagusia utziz eta eskumalara doan bidezidorra hartuz 20 minutuko jeitsiera gogorraren ondoren Magdalena/Urallagako leizera iritsiko gara. Bidezidorretik irteeta ez da komeni sakonera handiko hainbat osin eta amil-degi baitaude (lainoaz arriskutsuagoa izan daiteke).

3 puntutik, erabat oihangabetua dagoen alde batetik jarraituz 10 minututan bidegurutze berri batera **4** helduko gara, bide biek La Breña-ko bizkarre-eramaingo gaituztelarik.

A Ezkerreko aukera hartuz, 10 minututan, harkaitzean egindako arku baten azpitik igaroko gara, beste 20 minututan, bideari jarraituz, aipatutako bizkarre-eramaingo helduko garelarik.

IBILBIDEA

I.I.Z.tik abiatuz, “Peñas Negras” haizten azpian eskumaldetik ateratzen den aldaia hartuko dugu, bide hau El Cuadro (Alta Galdames) mendiaren ipar hegale-tik gora zuzentzen delarik.

Lehenengo aldapak gogor samarrak badira ere, apurka-apurka leuntzen doaz, 20 minututan bidegurutze batera iritsi arte **1**, bertatik beherantza doan bide nagusiari jarraituz, 300 metro aurrerago geure ezkerretara iturri bat aurkituko dugu.

Hamar minututako jeitsiera gozo baten ondoren eta erreka txiki bat igaro ondoren hurrengo bidegurutzera iritsiko gara. Zuzen jarraituz gero errestabide baten zehar aspaldiko meatzal ustiagune

batera helduko ginatke, guk aldiz, esku-malara doan gorako bidea **2** hartuko dugu, El Sauco-raino eramango gaituena, bertan, oraindik zenbait meatzal eraikuntza geratzen direlarik.

Hormazahar hauen zehar eta orratz formako paisaia karstiko baten aurretik



“El Sauco”ko meatzal hondarrak

B Aldaia zuzen jarraituz eta sakana bat zeharkatu ondoren, 10 minututan beste bidegurutze batera **5** helduko gara, bertan La Elvira meatzal ustia-gunearen aztarnak beha daitezke. Galdamesera jeisten den eskumarako bidea hartuko bagenu, 10 minututan, errestabide baten hasieraraino eramaten duen antzinako bagoneta linea batekin bat egingo genuke. Ibilbidearen gune honetan, egindako arrakala estu eta sakonetan meatzal ihardueraren ondorioak erraz ikus daitezke.

5 puntutik, Ganeran mendia inguratzeko duen aldaiarekin bat egiten duen bidegurutzeraino **6**, igoera samurreko 15 bat minutu emango ditugu, eta hemendik Gromeran bizkarreraino beste 5 minutu.

Bide nagusia hartuz, La Breña bizkarrerainoko jeitsiera hasiko dugu —bertan, inguruko herri eta mendietarainoko denboren berri ematen duten seinale batzuk daude— 10 bat minuturen buruan helduko garelarik.

Bideari jarraituz, 30 bat minututan “Peñas Negras” I.I.Z.raino jeitsiko gara.



Errestabideak. Atzekaldean La Cruz haitzpunta



La Breñako bizkarra. Ohar agiriak



Mea zamatokiak eta errestabideak

231 m. Goibehea: Ibilbideko goibehea 231 metrokoa da, “Peñas Negras” I.I.Z.ko 460 metroko altueratik, Ganeran eta Pico Menor mendien artean kokaturiko Gromeran bizkarrereko 691 metrora.

2,50 h.
3 h. Orduetgia: (a) ibilbidetik, gutxi gora behera 2 ordu eta 50 minutu; (b) ibilbidetik 3 ordu. Ibilbidearen helburua Magdalena leiza bada, I.I.Z.-tik gutxi gora beherako denbora ordubetekoa da.

Zailtasuna: Erdikoa. Tarterik aldapatsuena El Cuadro mendira igoteko lehenengo malda da, honen ondoren, bidea nahiko arina da. Zailtasuneko beste tarte bat, El Saucotik Magdalenarainoko jeitsiera eta igoera da (eguraldi txarrez edo lainoturik ez da gomendagarria).

IBILBIDEAREN EZAUGARRIAK

Elementu esanguratsuenak: Industri arkeologia, geologia, paisaiaren interpretazioa, landaretza eta etnografia.